

PRENTSA OHARRA

1

IPPCren bosgarren txostenaren bi autore nagusi Parisko COP21en erronkak Donostian aurkeztuko dituzten hamabi adituen artean

- **Nazioarteko adituen topaketa BC3ren eta UPV/EHUren “Climate Change on the road to Paris” uda eskolaren seigarren edizioaren baitan antolatu da.**
- **Eskola honetan klima-aldaketaren arloan nazioartean aztergai diren politikak eta zientziaren giltzak azalduko dira, eta merkatuaren ikuspegiarekin osatuko dira.**

[Donostia, 2015eko uztailak 13] Klima-aldaketaren aurrean hartu beharreko neurriak diseinatzeko mundu mailako topaketa nagusia eta erabakigarria Parisen egingo da datorren abenduan, COP21 “Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Hitzarmenaren Alderdien Biltzarra” izenekoaren baitan. Datak berebiziko garrantzia du klimari buruzko nazioarteko beste akordio bat sortu behar denez bertatik, herrialde guztietan aplikatu ahal izango dena planetako batez besteko tenperaturaren igoera 2°Ctik behera mantentzeko.

Munduaren iraungarritasunean klima-aldaketak duen eraginari buruzko ebidentzien argitan, planeta osoko gobernuak neurri politikoak, ekonomikoak eta sozialak hartzen ari dira sortutako kalteak aurreikusi eta atzeratzeko eta babesa eta berreskuratze-ekintzak ezartzeko. Klima-aldaketa agenda politikoaren lehen postuetan dago, eta BC3ren lan-esparru nagusietako bat da, hain zuzen ere, zientzian oinarritutako, horiek diseinatzeko ezagutza eskaintzea. Izan ere, ezer ez egiteak dituen kostuak balioesteak (ekonomikoa, ekologikoa eta soziala) gobernuak zerbait egitera mugiarazten ditu.

Klima-aldaketak planteatzen dituen erronkei eta aukerei heltzea ere ezagutza-kontua da. Testuinguru honetan antolatu dute elkarrekin BC3k eta UPV/EHUK klima-aldaketaren uda-eskolaren seigarren edizio hau, “Climate Change on the road to Paris” izenburuarekin. Zuzendariak Anil Markandya irakaslea (zuzendari zientifikoa) eta Ibon Galarraga doktorea (BC3ko ikertzailea) dira.

Eskola honen baitan bilduko dira uztailaren 13tik 15era Donostiako Miramar Jauregian klima-aldaketa aztertzen ari diren nazioarteko 12 aditu, horien artean, IPPCren (Nazio Batuen Erakundeko Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Panelaren) klima aldaketari buruzko bosgarren txostenaren “Coordinating Leading Author” espainiar bakarra, Iñigo Losada irakaslea, iraungarritasunaren arloan mundu-mailako adituetako bat dena eta IPPCko kide dena; eta Anil Markandya irakaslea. Eskolan parte hartuko duten gainerako hizlari bikainen artean nazioartean izen handia duten zentroetako irakasle eta unibertsitateko ikerlariak eta nazioarteko klima-politikari buruzko prozesuetan ibilbide oparoa eta aitortua duten pertsona ezagunak daude.

Uda eskola 2015

2

Uda eskola hau IPPCk definitutako esparruaren inguruan antolatu da, eta ezagutza zientifikoak klima-aldaketarekin zerikusia duten politika eta jarraibideekin lotzea du helburu.

Protagonistak

Klima Aldaketaren zientziari eskainitako saioan (uztailak 13) honako ikertzaile hauek esku hartuko dute: Sergio Fariak (Ikerbasque eta BC3) aurre egin beharreko erronka nagusiak aurkeztuko ditu; Guillem Chustek (Azti Tecnalia) itsasoko mailaren igoerari buruzko ikuspegi orokorra eskainiko du; Jesús Fernandezek (Kantabriako Unibertsitatea) klimari buruzko informazioa eskainiko du, alderdi globaletatik hasi eta klimaren erregionalizatoraino. Lehenengo saio hau amaitzeko, Omar Bellpratek (IC3) klimaren anomalien garrantzia azalduko du.

Bigarren jardunaldia **inpaktuei eta arriskuei** buruzkoa izango da (uztailak 14). Saioari Anil Markandyaren (BC3) esku-hartzearekin emango zaio hasiera, eta egokitzapenaren arloan aurre egin beharreko erronkez hitz egingo du. Ondoren David Morenok (BC3) egokitze-politikak zerbitzu ekosistemikoetan oinarritutako ikuspegitik argituko ditu. Ana Fornellesek (OECC) klimari buruzko nazioarteko akordioen arloan Espainiako Gobernuaren ikuspegia zein den azalduko die bertaratuei eta, azkenik, Iñigo Losadak (Instituto de Hidráulica Ambiental) itsasoaren igoerara egokitzeko neurriak azalduko ditu.

Hirugarren jardunaldian emango zaio amaiera eskolari, eta hirugarren saio hau **Parisko COP21 gailurrera eramango gaituen prozesu politikoa ulertzeko** izango da (uztailak 15). Gailur hau mugarri historikoa izango da, topaketan 2020tik aurrerako agenda diseinatuko baita. Lehenengo Pedro Linaresek esku hartuko du (Comillasko Unibertsitatea eta Harvard Kennedy School) eta energiak klima-aldaketa arintzean betetzen duen paperaz hitz egingo du. Jarraian Arild Underdalek (CICEP eta Osloko Unibertsitatea) erabakiak hartzeko prozesu politikoaren berri emango du. Ikuspegi akademikoa osatzeko, Gonzalo Saenz de Mierak (Espainiako Energia Ekonomiaren Elkartaren presidentea) energia-konpainia batek gailurrak duen ikuspegia eskainiko du, eta, amaitzeko, Teresa Riberak (IDDRI eta Espainiako Gobernuaren Klima Aldaketarako estatu-idazkari ohia) diplomaziak nazioarteko klimari buruzko politikan betetzen duen eginkizunaren ikuspegia eskainiko du.

Eskolaren esparruan praktikoki erakutsiko da klima-aldaketara egokitzaren arloan erabakiak hartzeko prozesua tokian tokian zer-nolakoa izaten den, eta jardura horretan izena emandako 60 ikaslek hartuko dute parte, gehienak doktoregoetako ikasleak, ikertzaileak eta adituak. Simulazio-ariketa praktikoa honen bidez prozesu hauetan parte hartzen duten eragileek ordezkaturako interes ezberdinen analisia egin nahi da. Kontuan izan behar da hartu beharreko erabakiak baldintzatu egiten dituztela aurrekontuetan izan diren murrizketek eta kontsiderazio politikoek eta, aldi berean, bat etorrarazi behar direla klima-aldaketaren ondorioz arrisku handi samarrean dauden hiri askoren egokitze beharrekin.

BC3, Basque Centre for Climate Change

BC3 diziplina anitzeko ikerketa-zentroa da, eta 12 herrialdeko 42 ikertzailek dihardute bertan Anil Markandya irakasleak zuzenduta. Zentroa 2008an sortu zen Eusko Jaurlaritzaren BERC programaren barruan, eta Euskal Herriko Unibertsitateak lagunduta, klima-aldaketaren kausa eta ondorioen epe luzeko ikerketa bikaina bultzatzeko.

BC3ko profesionalek egiten duten ikerketari eta partaide dituzten zientzia-kooperazioko sareei esker, Zentroa mundu mailako erreferentzia da gaur egun. Eta honen adibide, ICCGk hirugarren aldiz jarraian BC3ri klima-aldaketaren ekonomian eta politikan munduko laugarren Think Tank-ik eragingarriena dela azaldu du. www.bc3research.org